



UNA ESCENA VASCA

ITSAS-ERTZEAN

(Euskal-Esnalearen sariketan lenengo sariz saritutakoa)

Illunabarra...
 Eguzkia iya illean
 itsasoai musuka...
 Aitzak itsas-értzean
 aztinduntzen órruka
 itsas zakarra.
 Txistuka eldu dira
 arrai biziz beteta)
 itsas-ontziak...
 Ori poza! Begira
 kayan dantzan ume ta
 gazte guziak.
 Kai bertatik orduan
 lúrrin-ontzi (1) árroa
 oztez (2) beteta
 txistuka, illuñ zi juan,
 amets beltz bat lakoa
 Ameriketa.
 Negárrez Kai-aldera
 zuzendurik begiak
 ontzi-gañean...
 Baña, ontzia aúrrera...
 ...Deadárrka guziak
 itsas-értzean.
 Ara, ontzi árroa
 sártu da su ta gárrez
 itsas nasian...
 ...Etxera andre gaxoa
 kai-aldetih, negárrez
 bide guzian.



Bestetzuk bitárrean
 kayan t'ontzian alai
 dantzan t'ojuka...
 ...Eguzkia iya illean
 górrri-górrri itsasoai
 azken-musuka...

... ..
 Cri bai bizitzaren
 antza samiña...!
 Bizitzari musuka
 eriotz miña...!
 Biotzaren kayean
 atsegin-ontziitxoa
 sárrtzen danean,
 itxaropen árroa
 kayatik, árratzean
 igesi doa...
 Zalekeri ta ametsez
 beterik doa
 úrrutira ta gauetz...
 Ontzi gaxoa...!
 Biotzaren kayean
 gero iskanbilla
 gogoa irten danean
 atsegin-billa...
 Ta bitárrean bérriz,
 egi zorrótza!
 bizitzari musuka
 ai! eriotza...

(1) Luzin-ontzia=baporía.
 (2) Oztez=gendez.